



2012KO URTARRILAREN 26KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko urtarrilaren hogeita seian, iluntzeko zazpi terdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2011ko azaroaren 24an eta abenduaren 22an egindako bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- C.A.F. GUNEAN ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALAREN BEHIN-BEHINEKO ONARPENA.-

Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak, 2011ko uztailaren 28an egindako batzarraldiko akordio bidez, Santiago Peñalba Garmendia eta Manu Arruabarrena Florez arkitektoek eta Mikel Iriondo Iturrioz abogatuak idatzitako 1 Hirigintza Jarduketa Areako Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala dokumentua hasierako izaeraz onartu zuen. Aldaketa honek, besteak beste, Lazkaotik Ordiziara joateko errepidearen ibilbidearen aldaketa du helburu.

Dokumentua jendaurrean egon da bi hilabeteko denboraldian, iragarkiak 2011ko abuztuaren 9ko datako "Berria" eta "Noticias de Gipuzkoa" egunkarietan eta 2011ko abuztuaren 4ko datako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirelarik. Epe horretan alegazioen bi idatzi aurkeztu ziren, bata ADIF eta bestea CAFek aurkeztutakoak.

Bi alegazio hauen aurrean udal teknikariek beren txostena egin dute eta txostenak ondorengo dio:

1.- C.A.F.ek aurkeztutako alegazioak zera dio:



Lehenengoa: ADIF-ekin edukitako elkarrizketen ondoren, lurzatiaren planoaren aldatzea proposatzen da, eta honek xehatutako antolamenduaren aldaketa puntuala eta jarduketaren integratuaren mugaketa 51 m²-tan aldatzea dakar berarekin.

Bigarrena: b.10.1.1. lurzatiaren ibilgailu astunen barneko-trafikoa hobetzeko helburuarekin, honen mugaketa aldatzea proposatzen da, mugatutako espazio publikoa ukituz.

Hirugarrena: Enpresaren produkzio beharrak direla eta, 350 m²-ko eraikigarritasuna b.10.1.1. eta b.10.1.3 lurzatiaren artean mugitzea eta ondorioz lurzati eraikigarrien doikuntza proposatzen da.

Laugarrena: Bidegorria bizikleten bideen sistema lokal bezala kalifikatzea proposatzen da, ondorioz eremuaren xehatutako kalifikazioa aldatuz.

Alegazioei erantzuna:

Lurzatiaren eta xehatutako ordenazioaren doikuntzari dagokionez, ADIF-ek baita ere egindako eskaerak, espazio hondarra izanik, udal interesen kontra ez doala uste da, eta aspektu honek eremuaren ondorengo kudeaketa erraztuko duela. Beraz, jabeen arteko egungo akordioak ikusita, ez da eragozpenik ikusten puntu honetan alegazioa estimatzeko.

b.10.1.1 lurzatiaren mugatzearen zuzenketari dagokionez, mugaren aldaketa hau eremuaren iparraldean kokatzen dela adierazten da, N1 errepidearen azpiko pasabidearen aldamenean, eta "udal errepideak/aparkalekuak" bezala kalifikatutako errepide berriaren babes-eremua besterik ez du ukitzen. Alegazioan deskribatutako proposamenak ez ditu "espazio libreak" ukitzen, beraz, alegazioaren puntu honi aldeko txostena egiten zaio.

b.10.1.1 eta b.10.1.3 lurzatiaren artean eraikigarritasuna mugitzeari dagokionez, eraikigarritasuna 350 m²-tara murriztuz, eremuaren antolamenduaren irizpideei dagokionez ez dagoela aldaketarik informatzen da, lurzati pribatuaren barneko doikuntza izanik, eta eremu guztiaren neurketarekiko proposatutako aldaketa oso txikia izanik. Beraz, alegazioaren puntu honi aldeko txostena egiten zaio.

Azkenik, bidegorriaren kalifikazioa f.10.1.2 eta f.10.1.3 ziren lursailetan sartzeari dagokionez, modu honetan, indarreko plan berezian dauden espazio libre guztiak konpentsatzen direnez, irtenbide egokia dela uste da.

2.- A.D.I.F.ek aurkeztutako alegazioak zera dio:

Lehenengoa: ADIF-en jabetzako gunetan, eremuaren lurzatiak eta xehatutako zonifikazioa aldatzea eskatzen da, Trenbideen jabari publikoaren ondarezko eta juridiko izaerak mantenduz.

Alegazioei erantzuna:

Aurreko alegazioaren lehenengo atalean informatutakoarekin bat, aurkeztutako alegazioa estimatzearen alde informatzen da, eremuaren xehatutako kalifikazioa aldatuz.



Aurretik adierazitako guztia ikusita, aurkeztutako alegazioak puntu guztietan estimatzea proposatzen da, hasierako onespina duen dokumentua zuzentzen duen eranskin bezala aurkeztutako dokumentu osagarria onartuz, beraz, hau bera, tramitatzen ari den espedientearen barnean sartu beharko da.

Halaber sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere eman zitzaien hasierako onspenaren berri beraien txostena egin zezaten. Txostenak egiteko legezko epean ez da aldaketa puntualaren aurkako txostenik jaso.

Guzti horren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, eta beraz, Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuz, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- C.A.F.en alegazioak bere edukin guztian onartzea eta ADIFen alegazioa ere onartzea.
- 2.- Onartutako alegazioek diotena jasotzen duen eranskina hasierako dokumentuari erantsiz, arau subsidiarioen aldaketa puntuala behin behingoz onartzea.
- 3.- Dokumentua Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera bidaltzea.

IV.- C.A.F.EKO URBANIZAZIO LANEN 3. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

C.A.F.eko urbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoa eta Javier Santos arkitekto teknikoak lanen 3. obra-egiaztagiria luzatu dute. Hirugarren obra-egiaztagiri honen zenbatekoa HOGEITA BI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA ZORTZI EURO ETA HOGEITA SEI ZENTIMOTakoa (22.828,26 €) da. Lan hauek Construcciones Iturrioz, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du obra-egiaztagiri honen berri ez dela batzordean eman eta komenigarria ikusten duela honelakoak batzordetik pasatzea.

Alkateak erantzuten dio baietz horrela dela eta saiatuko dela horrela egiten aurretzean.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, C.A.F.eko urbanizazio lanen hirugarren obra-egiaztagiri hau onartzea erabakitzen du.

V.- BEASAINGO UDALAREN AURKA JARRITAKO KONTENTZIOSO-ADMINISTRATIBO ERREKURTSOA BERTAN BEHERA UZTEA.-

Lazkaoko eta Beasaingo Udalek bi udalerrien arteko mugarrien zerrenda berrikus-tea eta mugaketa eragiketen akta egin zuten eta akta hau bi udaletako Osoko Bilkurek onartua izan zen, 2011ko maiatzaren 12 eta 13an hurrenez hurren. Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko Departamentuaren Diputatuak bi udalek elkarrekin izenpetutako akta argitaratzea xedatuz emandako Foru Araua, 2011ko uztailaren 19ko 137 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bi udalek hitzartutako mugarren berrikuskatze eta mugaketa eragiketak, beste aurrikuspen batzuen artean, Beasaingo Udalerriko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 3. Sektorea -Ugartemendi- ukitzen dute, izan ere hirigintza gune honetako lurren zati bat Lazkaoko udalerrian kokatzen da, eta gune honek behin betikoz onartutako Plan Partziala dauka, korporazio hark 2008ko irailaren 11n egindako batzaraldian hartutako akordioaren bidez, eta honek 3. sektoreko -Ugartemendi- hirigintza dokumentuak Beasaingo udalerriko mugetara egokitzearen beharra dakar.

Lazkao Udalak Beasaingo 3. Sektoreko Plan Partzialaren behin-betiko onarpenaren aurka errekurtsio kontentzioso-administratiboa tartejarrita dauka, eta errekurtsio hau Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren kontentzioso-administratibo Salaren aurrean 830/2009 zenbakia daramana da. Udal hau errekurtsio hori tartejartzera eraman zuten zioak lurraldetasunezkoak izan ziren, aipatutako 3. sektoreak Lazkaoko udalerrikoak ziren lurrak arautu eta ukitzen zituela kontsideratu zuelako.

Orain dela gutxi, eta udal honen eskariz, Beasaingo Udalak 2011ko abenduaren 1ean egindako batzaraldian 3. Sektoreko -Ugartemendi- Plan Partziala eta Hirigintzako Jarduketa Programa bi udalek hitzartutako lurralde mugaketara egokitzea xedatzen dueneko akordioa hartu du.

Azaldatukoaren ondorioz, eta kontentzioso-administratibo Auzibide Legearen 74.7 artikuluan jasotako aurreikuspena gertatzen denez, Osoko Bilkuran, aho batez, zera erabaki du:

Bakarra.- Udal honek Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren kontentzioso-administratibo Salaren aurrean tartejarrita daukan errekurtsioa, 830/2009 zenbakia daramana, bertan behera uztea.

VI.- KUTXAREN GOBERNU ORGANUETAN ORDEZKARITZA.-

Alkateak bertaraturikoei adierazten die aipaturiko erakundean egingo diren hauteskundeak direla eta, berauetan partehartu eta honela Gipuzkoa eta Donostia Kutxako Gobernu Organuetan ordezkariak lortzeko aukera dagoela Udalen Bilkura medio.

Aukera honetaz baliatzeko asmotan, Bilduk udal bilkura proposamena egiten du.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du Bilduk bere proposamena egitea zilegi dela, beraiek ere bere egunean hala egin zutela, eta proposamen honen aurrean abstenitu egingo direla.

Serna zinegotziak (PSE) esaten du proposamenaren aurka bozkatuko dutela, aurrerakoan ere egin zuten bezala. Gehitzen du uste dutela Kutxako gobernu organuetan alderdi guztiak egon behar dutela ordezkariak eta udal talde hau osatzeak ez duela horretan laguntzen.

Alkateak bere proposamena bozketara eramaten du, honako emaitzak lortuz:

Aldeko bozkek: 7 botu (Bildu)

Kontrako bozkek: 1 (PSE)

Abstentzioak: 5 (EAJ)



Bozketaren emaitzekin bat, Gipuzkoa eta Donostia Kutzako Gobernu Organuak osatuko dituzten Aholkulari Orokorren aukeraketan ordezkari lortzeko asmoz, ondoren aipatzen diren Udalen Bilkura proposamena onartzea erabakitzen da:

Segura, Berastegi, Deba, Asteasu, Zestoa, Eskoriatza, Lazkao, Alegia, Legazpi, Zumaia, Tolosa, Getaria.

VII.- UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FONDOAREN INGURUKO MOZIOA.-

PSE-EEko udal taldeak aurkeztutako mozioak honela dio:

"Udal finantzaketarako Foru Fondoaren diru-iturri garrantzitsuenetariko bat da. Foru Aldundiak egiten duen ekarpen honen bidez udalek itundutako zergetan bildutakoan partaidetza dute. Foru Fondoaren ohiko baliabide bat da Udaletan eta Udalek edozer motatako gastua finantzatzeko erabil dezakete, nahiz gastu aarrunta nahiz kapital gastua izan.

Egungo egoera ekonomikoaren aurrean udal askok ezin diote itzuli Gipuzkoako Foru Aldundiari Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren diru-iturri garrantzitsuenetariko bat da. Foru Aldundiak egiten duen ekarpen honen bidez udalek itundutako zergetan bildutakoan partaidetza dute. Foru Fondoaren ohiko baliabide bat da Udaletan eta Udalek edozer motatako gastua finantzatzeko erabil dezakete, nahiz gastu aarrunta nahiz kapital gastua izan.

Egungo egoera ekonomikoaren aurrean udal askok ezin diote itzuli Gipuzkoako Foru Aldundiari Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren diru-iturri garrantzitsuenetariko bat da. Foru Aldundiak egiten duen ekarpen honen bidez udalek itundutako zergetan bildutakoan partaidetza dute. Foru Fondoaren ohiko baliabide bat da Udaletan eta Udalek edozer motatako gastua finantzatzeko erabil dezakete, nahiz gastu aarrunta nahiz kapital gastua izan.

Egungo egoera ekonomikoaren aurrean udal askok ezin diote itzuli Gipuzkoako Foru Aldundiari Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren diru-iturri garrantzitsuenetariko bat da. Foru Aldundiak egiten duen ekarpen honen bidez udalek itundutako zergetan bildutakoan partaidetza dute. Foru Fondoaren ohiko baliabide bat da Udaletan eta Udalek edozer motatako gastua finantzatzeko erabil dezakete, nahiz gastu aarrunta nahiz kapital gastua izan.

2011. urtea ez da lehenengo krisi urtea izan, ezta Foru Aldundiak gero jasoko dituen diru-sarreraren aurreikuspen handiagoa egin duelako udalek dirua itzuli behar izan dutena ere. UFFak ezarritako aurrekontu aurreikuspenaren arabera txikiagoaren aurrean 2008. urtetik aurrera Udalek 2008, 2009 eta 2010 urteetan milioika euro itzuli behar izan dituzte.

2009. urtean, esaterako, hogeita zazpi milioi izan ziren Donostiako Udalak itzuli behar izan zituenak Foru - Kutxara.

Une hartan erakundeetan aurreikuspenik ez zegoelako eta Gipuzkoako udalen egoera zaila kontutan hartuta, Sozialisten ekimenez, Gipuzkoako Lurralde Finantza Kontseiluan akordio batetara iritsi zen itzulketa hiru urtetan egin zedin, eta horrela jaso zen Foru Arauan, 2010. zen lehen urtean ezer itzuli gabe. Akordio egokia, erreztasuna ematen dituen eta alderdi guztientzat ona izan dela uste dugu eta gainera guztiok jarraitu beharreko eredu.

Nahikotasun finantzieroa erabakigarria da udal autonomiaren printzipiorako, nahitaezkoa baita behar adinako baliabide finantzieroa izatea, egokitu zaizkien funtzioak inolako mugarik gabe eta osotasunean burutzeko.

Udalak ari dira batez ere krisia jasaten eta beharrezkoa da erakundeen arteko elkartzatzea. Horregatik Lazkaoko PSE-EE alderdiak honako hau proposatzen du:

MOZIOA

Lehenengoa.- Lazkaoko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011 urteari dagokion udal finantzaketarako fondoaren kitapen negatiboaren itzulketa erraztu ez izanaren akordioa hartu izana salatzen du, honek udal hau finantzarioki itotzea ekarriko duelarik.

Bigarrena.- Lazkaoko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari bere jarrera berriz hausnartzeko eta 2009. urteari zegokion itzulpena egiteko ezarri zen sistema bera ezartzea eskatzen dio, hau da, itzulketan urtebeteko gabezia eta 2011n, 2012an eta 2013an ordainketa zati-katuta egitea."

Goenaga zinegotziak (Bildu) esaten du Ogasun Batzordean esan zuen bezala, ezezkoa emango diotela mozio honi. Gehitzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak ez daukala gerakinik mozio honek eskatzen duena egiteko. Esaten du baita ere aurreko urteetan Gipuzkoako Foru Aldundiak honelako neurriak hartu zituenean horretarako gerakina bazuela baina orain ez duela. Esaten du baita ere badakitela udalen egoera zaila dela eta Lazkaoko Udala egoera horretara egokitzeko hartu beharreko neurriak hartzen ari dela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du ulertzen dutela Bildutik esan dutena eta Lazkaoren egoera ez dela hain txarra baina beste udal batzuk okerrago daudenak ere badaudela eta EAJ bezala eta Gipuzkoa osoko ikuspegitik begiratuta ondo ikusten dutela mozioan planteazen dena, horregatik mozioaren alde bozkatuko dutela.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ, PSE-EE) eta aurkako 7 botuz (Bildu) mozioa atzera botatzen du.

VIII.- ZABORREN INGURUKO MOZIOA ETA ATEZ-ATEKO BILKETAREN INGURUKO MOZIOA.-

Ikusita, PSE-EEko udal taldeak aurkeztutako Zaborren inguruko mozioa alde bategatik eta EAJko udal taldeak aurkeztutako zaborren atez-ateko bilketa bestetik, gai berari erantzuten dien mozioak direla, bi mozioen aurkezleek adostasunera iritsi dira bi mozioak bat bakarria bezala aztertu eta bozkatzeko.

Horretarako, Abisu zinegotziak (EAJ) Serna zinegotziari (PSE-EE) eskatu dio eta honek ontzat eman du, PSE-EEK aurkeztutako mozioari hirugarren puntu bat eranstea.

PSE-EEK aurkeztutako mozioak, EAJk erantsitako puntua gehitu ondoren, honela dio:

"Azken egun hauetan jakin dugu berrogei eskutitz, alkateengatik sinatuak igorri direla, udalbatzaren izenean esanez, euren udalerrietan atez ateko zaborren batze sistema ezarriko dela. Aldez aurretik, bereiztu nahi dugu batze sistema eta gero izango duen tratamendua. Bata bestearekin ez du zer ikusirik.

Sozialistak, batze sistema buruz beste alternatiba bat defendatzen dugu, Gipuzkoako leku askotan orain martxan dagoena iadanik eta sistema egokiago bat bezala agerian geratu da arrazoi hauengatik:

1. Atez ateko sistema, bostgarren edukiontzia edo materia organikorako edukiontzia baino zikinagoa da, honek, bi hamarkadako atzerapena suposatzen du, orduan jendeak



kalean zaborrak uzten zituzten. Kaleetan edukiontzi itxiak garbiagoak dira eta gure udalerrietako aurpegia askoz ere ordenatuagoa da.

2. Atez ateko sistema deserosoagoa da, astelehenetan ontziratzeak jeistera behartzen gaitu, astearteetan organikoa, asteazkeneetan kartoizkoak, ostegunetan beira, etabar ... Askatasuna mozten du edozein egunetan alimentu iragankorrak kontsumitzeko orduan.
3. Atez ateko sistema Udaletxerako garestiagoa da eta gainezko zamak herritarren ordaindu beharko dute. Hiru udalerrientzako, 30.000 mila biztanle dituztenak, Bilduk 17 langile erabili beharko ditu, baina 300.000 biztanleko konurbazio batentzako, Donostialdekoa bezala, 7 langile bakarrik eduki ditu orain arte.

Oso penagarria da Alkateak edo Alkatesak, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketara zuzentzea jakinarazteko, bere kabu eta beste oposizioko taldeen eritzia kontutan hartu gabe, Atez Ateko sistema inposatu behar dutela.

Beraz, guzti horregatik, PSE-EEko Taldeak hurrengo MOZIOA aurkezten du:

Lehena.- Lazkaoko Udaletxeko Osoko Bilkurak, Udal Gobernuari exijitzen dio, zaborrak batzeko sistemari buruz adosmen bat hartu aurretik, eztabaida demokratiko bat izatea Osoko Bilkuran eta Udaletxeko udalbatzak adosten duena errespetatzeko konpromezua hartzeko.

Bigarrena.- Lazkaoko Udaletxeko Osoko Bilkurak, Udal Gobernuari exijitzen dio, zaborrak batzeko sistemari buruz adosmen bat hartu aurretik, urgentziako izaera edukirik aurkeztea dituzten datuak Atez Ateko kostuari dagokionez eta zabor organikoaren destituari buruz eta garraio horrek izango duen kostuari buruz ere.

Hirugarrena.- Ez diogu gardentasunik eta demokraziarik ikusten horrelako erabakiak komunikabideetan argitaratzeari, udalari dagozkion organo eskudun eta legezkoetan, alde aurretiko analisirik, eztabaidarik eta erabakirik egon ez denean."

Alkateak (Bildu) esaten du ez dela bere nahia edukiontzi edo atez-ateko bilketaren inguruan eztabaida sortzea, egokia eztabaida hori ingurugiro batzordean ematea delako eta gehitzen du garrantzitsuagoa jotzen duela adostasunera iristea. Esaten du baita ere garrantzitsua ikusten duela egiten diren baieztapenak frogatzea.

Albisu zinegotziak esaten du jakin nahiko lukeela bilketa moduari buruz ea erabakia hartuta dagoen hala oraindik aztertzeko fasean dagoen.

Alkateak erantzuten dio beraiek hasierakoz atez-ateko bilketaren alde daudela, beraiek dituzten datuen arabera emaitzik hoberenak ematen dituelako, baina beste sistema batek emaitza hobek ematen dituela frogatuko balitz haren alde egingo luketela. Eta gehitzen du eztabaida hori hemen zabaltzea baino egokiagoa dela batzordean egitea.

Serna zinegotziak esaten du datuak esaten dugunean kontuz ibili behar dela ze atez ateko sistema bat ezarritako herri batean herritar batek bere zaborra hartu eta beste herri batetara eramaten badu hori ez dela kontutan hartzen, eta aldiz bosgarren edukin-gailuaren sistemak biak hartzen dituela kontuan, betetzen duena eta betetzen ez duena.



Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du beraien aldetik ondo iruditzen zaiela eztabaida baina batzuetan prentsan azaltzen dela erabakia hartuta balego bezala. Baina bestalde Batzar Nagusietan aurrekontuak onartzerakoan, 6 hilabeteko epea irekitzea adostu zutela eztabaida hau egiteko. Esaten du baita ere berak uste duela denok daudela zero zaborren alde eta hori ona dela.

Alkateak esaten du Ingurumen Batzordea dela gaia aztertzeko lekurik aproposena orain arte egin den bezala.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ, PSE-EE) eta aurkako 7 botuz (Bildu) mozioa atzera botatzen du.

IX.- KUTXABANKEN INGURUKO MOZIOA.-

Bilduk aurkeztutako mozioak honela dio:

"Gipuzkoako Kutxako Administrazio Kontseiluaren akordioen ondoren, Bilduko udal-taldekak honako MOZIO hau aurkezten du, eztabaidatua eta onartua izan dadin:

- 1.- Hartutako erabakia gaitzestea, Administrazio Kontseilua bi indar politikoren artean bakarrik osatzearena, alegia, gainerako alderdi politikoak bazterrean utziz. Horrela, erabaki hau hartu dutenek Kutxabank entitatea erabat kontrola dezakete modu baztertzaillean.
- 2.- Kutxabank osatzeko lortu zen adostasun hura mantentzea eskatzea, hiru Kutxetako Biltzarretan oso babestua izan zena. Adostasun horrek euskal gizartearen eta bere errealitate instituzionalaren ordezkari izan behar duela, adierazgarri eta proportzionala bideratzen zuen, Kutxabank izan dadin gizartearen eta Herri honen zerbitzura egongo den entitate bat.
- 3.- Kutxabank entitate berrian Kutxak duen ordezkari errespetatzea exijitzea, joan den iraileko Kutxen Biltzarretan adostu eta onartutako parametroetan. Beraz, ez onartzea Kutxaren, Gipuzkoaren eta gipuzkoarren kalterako izango den ordezkari-murrizketa."

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du beraien ere baloratzen dutela sorreran lortutako kontsentsua. Esaten du baita ere prozesua udal honetan ez baizik beste foro batean eraman dela eta nahiko luketela adostasunera iristea eta badakitela bilerak egon direla baina azkenean ez dela kontsentsua lortu eta beraien kontsentsu hori lortzearen alde badaude ere azkenean gehiengoak hartu behar duela erabakia eta epe baten barruan egoerak hala eskatzen duelako eta guzti horregatik mozioaren aurka bozkatuko dutela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurka bozkatuko dutela eta pixka bat Kutxako organuetarako udal-taldea osatzeari buruzko gaian esandako antzeko arrazoiengatik. Esaten du baita ere behar bada ez dela ordezkari hoberena aukeratu den hori, izan ere ez daude alderdi politiko guztiak, baina hori dela lortu dena eta bestalde ordezkariaren aukeraketa hauetan asko dagoela egiteko eta aurreratzeko.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (Bildu) eta aurkako 6 botuz (EAJ, PSE-EE) mozioa onartu egiten du.



X.- HAUR LAPURTUEN INGURUKO MOZIOA.-

Alkateak esaten du mozio hau udala osatzen duten alderdi politiko guztien izenean aurkezten dela.

Mozioak honela dio:

"Euskal Autonomia Erkidegoan 50eko hamarkadatik 90eko hamarkadara bitartean administrazio-irregularitasun batzuk izan zirela-eta, jaioberrien bidegabeko jabetzeen edo adopzio irregularren susmoa dago.

Gipuzkoa kaltetu gehien dituen lurraldea da, eta ustezko traman Gipuzkoako 20 ospitale zeudela susmatzen da. Hori dela-eta, Gipuzkoako Batzar Nagusiek kaltetuen elkarte batzuk gonbidatu zituzten, argudioak eta kezkak azal zitzaizten, 2011ko irailaren 26an, Berdintasun Politiken, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoraren Batzordean.

Batzorde hartan, SOS Bebés Robados-Euskadi eta ANADIR elkarteetako ordezkariak izan ziren. Ikertzen ari diren zenbait kasuren egoera azaldu zuten, eta dokumentazioa banatu zuten; eta Batzar Nagusiei dituzten helburuetan laguntzeko eskatu zieten.

Jaioberrien lapurreten balizko auzian azken egunotan hainbat gertakari izan dira, hala nola gorpuak hobitik ateratzea eta Gipuzkoako ospitale eta kliniketako ikerketak. Hori kontua izanda, Gipuzkoako Batzar Nagusiek erakunde-adierazpen hau egin dute

***GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ERAKUNDE-ADIERAZPENA, LAPURTUTAKO HAURREN AUIZARI BURUZKO LAGUNTZA-ESKAERARI ETA LANKIDETZARI BURUZKOA**

Erakunde-komunikatu honen bidez, Gipuzkoako Batzar Nagusiek elkartasun osoa adierazten diete jaioberrien lapurreten eta adopzio ilegalen kasuetako familiei.

Kaltetuek aldarrikatzen duten egia jakiteko eskubideari dagokionez, alegia, senitartekoek desagertutakoen norakoaren berri izateko eskubideari dagokionez, Gipuzkoako Batzar Nagusiek uste dute agintariek eskubide hori bermatzeko obligazio politikoa dutela, zehazki, eskumena duten tokiko, lurraldeko, erkidegoko nahiz estatuko agintariek.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek euskal erakunde guztiei eskatzen diete, eta bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlearitzari eskatzen diete behar diren eta haien esku dauden neurri guztiak hartzeko aipatutako elkarteek eskatzen duten egia-eskubidea bermatzeko.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diete, beste neurri batzuen artean, kaltetuentzako aholkularitza-zerbitzu bat sortzeko.

Berdintasun Politiken, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Batzordean hasi dituzten lanekin jarraitzeko konpromisoa hartzen dute Gipuzkoako Batzar Nagusiek, harik eta egitateak argitu arte."



Osoko Bilkurak, aho batez, mozioa onartu egiten du.

XI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du galdera bat et erregu bat dauzkala egiteko. Galderari dagokionean kiroldegiko obra noiz hasiko den galdetzen du; erreguari dagokionean jestio hori ahalik eta azkarren egitea komeni dela estali gabeko igerilekua berriro ekainean irekiko dela kontutan izanda.

Alkateak erantzuten dio informazio hau datorren asteartean eman asmo zuela, hirigintza batzordean, baina galdera egin duenez esango diola gaur goizean hitzartu dutela esleipena egina daukan enpresarekin lanak datorren asteartean hastea.

Jendartetik, eta haur lapurtuen gaiaren inguruan, emakume batek esaten du berak ere haur baten kasua izan zuela eta ez dakitela haur lapurtua izan zen ala ez baina bila dabiltzala eta jakin egin nahi dutela.

Alkateak erantzuten dio udalak bere eskuan duen guztia egingo duela laguntzeko eta udal gizarte zerbitzuak bera laguntzeko dituela.

Jendartetik gizon batek hirigintza eta zergen inguruan berari gertatutakoaren buruz hitzegiten du.

Alkateak erantzuten dio bere arazo hori udal arkitekto teknikoari azaltzeko eta udala saiatuko dela irtenbidea bilatzen.

Jendartetik beste gizon batek zabor bilketa sistema eta politiken inguruan bere iritzia ematen du.

Serna zinegotziak (PSE-EE), azken interbentzio honen inguruan, berak aurkeztutako zaborren mozioari buruz hitzegin duela eta, esandakoari erantzun egiten dio.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko bederatziak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

